

TSUGUFUMI NATSUMOTO / AP



Hiroshimak duela 53 urteko bonbardaketa nuklearraren biktimak omendu ditu

Atzo 53 urte bete ziren historiako lehen bonbardaketa nuklearra gertatu zenetik. 1945. urteko abuztuaren 6an, EEBetako Enola Gay hegazkin bonbarderoak karga atomikoa hustu zuen Japoniako Hiroshima hirian. 140.000 pertsonak galdu zuten bizia erasoan eta ondorengo hilabeteetan. Hiru egun geroago, EEBek Japoniako Nagasaki hiria bonbardatu zuten, eta 115.000 japoniar hil ziren berehala eta ondorengo hilabeteetan. Horrez gainera, milaka herritar gehiagok jasan zituzten eraso nuklearraren ondorioak bizitza guztian, eta milaka hil ziren ondorengo urteetan gaixo. Mundu osoan egin ziren atzo Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketetan hildakoen omenezko ekintzak; argazkian Hiroshimako haur japoniar batzuk ari dira biktimen alde errezatzen.

Lewinskyk Epaimahai Nagusiaren aurrean deklaratu du

■ Litekeena da Clintonen etorkizuna lehendakari gisa kolokan egotea

Agentziak / Washington

MONICA LEWINSKYK atzo deklaratu zuen EEBetako Epaimahai Nagusi federalaren aurrean. Lewinskyk Etxe Zurian lan egin zuen orain hiru urte beka bati esker, eta ustez bi urtetan sexu harremanak izan zituen Bill Clinton lehendakari estatu batuarrekin. Epaimahai Nagusiari harreman horien xehetasunak argitu zizkion, eta herrialde osoa Lewinskyk esango zuena entzun zain zegoen. Izan ere, baliteke emakumeak esaten duenak kolokan jartzea Clintonen etorkizuna EEBetako lehendakari gisa.

Bekaria ohiak orain egun batzuk onartu zuen Lewinsky afera aztertzen ari den Epaimahai Nagusiaren aurrean. Baietza esan aurretik immunitatea lortu zuen, bai berarentzat bai Marcia Lewis amarentzat.

Lewinsky afera joan den urtarrilean lehertu zen. Lewinsky Linda Tripp lagunari egindako aitortpenak zituen grabazioa eman zion Trippek Kenneth Starr fiskalari. Grabazio horietan bekaria ohiak onartu egin zuen sexu harremanak izan zituen EEBetako lehendakariarekin, eta Clintonen aholkulariek guztia ezkutatzeko eskatu ziotela.

Clintonen berehala esan zuen inoiz ez zuela sexu harremanik izan Lewinskyrekin. Baina Starr fiskalaren bulegoak deklaratzeko hitzordua egin zion EEBetako lehendakariari. Horrek joan den astean onartu zuen borondatez deklaratzeari hila- ren 17an.


Starr fiskalaren helburua da frogatzea EEBetako lehendakariak zina hautsi zuela eta Justiziari traba egin ziola Lewinskyri gezurra esateko aholkatzean. X

Banyamulenge tutsiek mendean dute ekialdea, eta Kisangani hartu nahi dute

Kongoko Errepublikako presidenteak tropak igorri ditu erreboltari aurre egiteko

Kongoko Errepublika Demokratikoko banyamulenge tutsiek ekialdean dauden Bukavu, Goma eta Uvira kontrolpean dituzte. Orain Kisangani hiria hartu nahi dute, ekialdetik Kinshasa hiribururako bidean gune estrategikoan dagoelako. Kabilak tropak eta tankeak igorri ditu ipar eta hego- ekialdera, erreboltak aurrera egin ez dezan.

Agentziak / Kinshasa



Laurent-Desire Kabila, Kongoko Errepublika Demokratikoko presidentea, iazko argazkian.

CHRISTOPHE
SIMON
EPA

na da. Erreboltariak Kisangani hartu nahi dute, hiriburura hel- tzeke ezinbestekoa zaielako.

Kisanganin zer gertatzen ari den ez dago garbi. Kabilaren gobernuak iturriek esan zuten borroka bakanak gertatzen ari direla Gobernuaren aldeko tropen eta banyamulenge tutsien artean. Iturri diplomatikoen hitzetan, berriz, borrokan ari dira hiri horretan.

Kabilak erreboltari aurre egin nahi dio, ekialdetik beste inora heda ez dadin. Horregatik, Kongoko Errepublikako presidenteak tropak eta tankeak igorri zituen atzo ipar eta hego-ekialdera. Kinshasatik Kisanganira, gutxienez bi batailoi irten ziren.


Indar Errepublikano Federa- listak mugimendu politikoak agi- ri bat argitaratu zuen Uviran, eta Kabilari leporatu zion «enfrenta- menduak hasi eta banyamulen-

geen aurka exekuzio sumarioak» egitea. Horrez gainera, Arthur Zahidi Ngoma buru duten banyamulengeek geurtatu egin zuten joan den astelehenean hasitako matxinadak Ruandaren babesa duenik, nahiz eta Kongoko Errepublikako Gobernuak hala ziur- tatu. Hain zuzen, Kabilak atzo esan zuen gerra eramango duela Ruandara. «Gerra eramango dugu bere jatorriko lekura, eta ruandarrek ez dute gerra irabazi- ko», adierazi zuen. Pasteur Bizimungu Ruandako presidenteak ukatu egin zuen banyamulengeei lagundu dionik, baina arrazoia egonda egingo duela gehitu zuen.

Kabilaren alde manifestazioa • Kinshasan, 50.000 bat herrita- rrek manifestazioa egin zuten Kabilaren alde, eta banyamulen- geen aurka.

Bestalde, Etienne Tshisekedi

buru duen oposizioako Demokra- zia eta Gizarte Aurrerakuntzako Batasunak irtenbide baketsura- ko deia egin zuen. X



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz
lagundutako egunkaria